



## Irakasleen 1. hizkuntza-eskakizuna (HE1)

### Zer da HE1?

Irakasleen HE1 hizkuntza-eskakizunak euskara ikastetxean harreman-hizkuntza moduan (ikasleekin, gurasoekin, irakasleekin) erabiltzea bermatzen du. Maila hori ez da aski euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetarako (ikus 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko EHAAn). **Europako Erreferentzia Markoaren B2** mailari dagokio.

### Noiz dira azterketa-deialdiak?

2024. urtean bi deialdi orokor egingo dira itunpeko irakaskuntzako irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Lehenengo deialdia otsailean izango da, eta, bigarrena, irailean. Egutegian zehaztuko dira deialdi batean eta bestean izena emateko epeak. IRALE programaren bidez liberatuta dauden itunpeko irakaskuntzako irakasleek eta hezkuntza-langileek ere deialdi orokor hauetan parte hartuko dute.

### Nolakoak dira azterketak?

Bi proba egongo dira, egun desberdinetan:

- **Proba Idatzia.** Lau ariketa ditu: Ahozkoaren ulermena, Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Ahozkoaren Ulermena	0tik 5era
Irakurmena	0tik 5era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi 1
	Gutxi 2
	Nahikoa 4
	Ongi 6
	Oso Ongi 8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10
	Nahikoa 15
	Ongi 20
	Oso Ongi 25
Gainditzeko	24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzaileekiko Elkarrizketa gidatua.

## Irakasleen 2. hizkuntza-eskakizuna (HE2)

### Zer da HE2?

Irakasleen HE2 hizkuntza-eskakizunak euskara, harreman-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza moduan ere erabiltzea bermatzen du, bereziki euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetan (ikus 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko EHAAn). **Europako Erreferentzia Markoaren C1** mailari dagokio.

### Noiz dira azterketa-deialdiak?

2024. urtean bi deialdi orokor egingo dira itunpeko irakaskuntzako irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Lehenengo deialdia otsailean izango da, eta, bigarrena, irailean. Egutegian zehaztuko dira deialdi batean eta bestean izena emateko epeak. IRALE programaren bidez liberatuta dauden itunpeko irakaskuntzako irakasleek eta hezkuntza-langileek ere deialdi orokor hauetan parte hartuko dute.

### Nolakoak dira azterketak?

Bi proba daude, egun desberdinetan:

- **Proba Idatzia.** Hiru ariketa ditu: Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Irakurmena	Otik 10era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi 1
	Gutxi 2
	Nahikoa 4
	Ongi 6
	Oso Ongi 8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10
	Nahikoa 15
	Ongi 20
	Oso Ongi 25
Gaunditzeko	24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzaileekiko Elkarrizketa gidatua.

## Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA)

### Zer da HLEA?

HLEA hezkuntzaren arloko hizkuntza-eskakizun bat da. Hezkuntzako HE1 (B2) eta HE2 (C1) hizkuntza-eskakizunen arteko maila da izatez. (ikus 66/2005 Dekretua, 2005eko apirilaren 14ko EHAAn)

### Norentzat da?

Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei zuzendua dago.

### Nork du aitortua HLEA?

Irakasleen HE2 (edo baliokideren bat) egiaztatuta dutenek ez dute HLEA lortu behar, berez maila altuagoa egiaztatuz baitute. Bestalde, HBLEM agiria duten guztiek HLEA hizkuntza-eskakizuna aitortua dute.

### Noiz dira azterketa-deialdiak?

2024. urtean bi deialdi orokor egingo dira itunpeko irakaskuntzako irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Lehenengo deialdia otsailean izango da, eta, bigarrena, irailean. Egutegian zehaztuko dira deialdi batean eta bestean izena emateko epeak. IRALE programaren bidez liberatuta dauden itunpeko irakaskuntzako irakasleek eta hezkuntza-langileek ere deialdi orokor hauetan parte hartuko dute.

### Nolakoak dira azterketak?

Bi proba egongo dira, egun desberdinetan:

- **Proba Idatzia.** Lau ariketa ditu: Ahozkoaren ulermena, Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era
Irakurmena	Otik 5era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi 1
	Gutxi 2
	Nahikoa 4
	Ongi 6
	Oso Ongi 8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10
	Nahikoa 15
	Ongi 20
	Oso Ongi 25
Gaunditzeko	24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzailerikiko Elkarrizketa gidatua.

### Erreklamazioak non/nola aurkeztu.

Notak ikusteko aplikazioan bertan (<https://ikasgunea.euskadi.eus/>) aurkeztu behar dira, edo, bestela, Hezkuntza Ordezkaritzetan, egutegian adierazitako epearen barruan. Proba idatziaren eta/edo ahozko probaren erreklamazioak epe horretan bertan aurkeztu beharko dira aldi berean.

Proba idatziaren emaitza argitaratzen denean, azterketariek ikusgai izango dute norberak sortutako idatzia. Ahozko grabazioa entzun nahi duenak, berriz, hala eskatu

beharko du erreklamazio-idazkian bertan, egutegian zehaztutako epearen barruan.

Ahozko probaren grabazioa entzuteak ez du esan nahi pertsona bakoitzari azalpen indibidualak emango zaizkionik.

Erreklamazioa eskatu duten pertsona guztien azterketak birzuzendu egingo dira, eta behin betiko emaitzak egutegian zehaztutako egunean argitaratuko dira, noten aplikazioan.